



Ondarearen Europako
Jardunaldiak

BAT EGIN EUROPAKO KULTUR ONDAREAREN FESTA HANDIAREKIN!

PARTE HARTZEKO GIDA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



European Heritage Days
Journées européennes
du patrimoine



KAIXO!

Pentsatu duzu noizbait Ondarearen Europako Jardunaldietan egiteko kultur ekitaldi bat antolatzea? Erakundeek bakarrik parte har zezaketela uste zenuen? Ez da horrela, Ondarearen Europako Jardunaldiak, zerbait esateko duten pertsona guztienak dira, **haien ondarea, historia eta memoria partekatu** nahi duten guztienak, hain zuzen ere.

Ondareko ekitaldi handi honetan parte hartzen laguntzeko egin dugu gida hau. Gida honi esker, Ondarearen Europako Jardunaldiak zer diren ulertuko duzu, eta bertan aurki ditzakezu jardunaldi bat antolatzeko kontuan hartu beharreko zenbait gako, ekitaldi motei buruzko ideiak, zure jarduerak arrakasta izateko garrantzitsua den informazioa, ekitaldia bidaltzeko laguntza... azken batean, martxan jartzeko beharrezko duzun guztia.

Baina benetako **protagonistak** jarduerak antolatzen dituzten kultur eragile guztiak dira: museoak, udaletako kultur, turismo, berdintasun eta abarreko teknikariak, mota guztietako elkarteak, gobernuz kanpoko erakundeak, artxiboak, liburutegiak, jardun bereziak proposatuz parte hartzera animatzen diren partikularrak.

Guztion artean sortzen den proiektua da; izan ere, Ondarearen Europako Jardunaldiak posible dira azken urteetan **Gipuzkoan 400 ekitaldi** baino gehiago antolatu dituzten **zoo eragileri baino gehiagori** esker.

Ondarearen Europako Jardunaldiak Europako Kontseiluko eta Europako Batzordeko ekimenak dira eta Euskadin hiru Foru Aldundiek bultzatzen dituzte Eusko Jaurlaritzarekin batera.

**Animatzen al zara?
Bat egin ondare festarekin!**





KULTURAREN BIDEAK

Ondarearen Europako Jardunaldiek trukeek nola eraiki duten **kultura-ondarea** eta nola jarraitzen duten gaur egun ere **eraikitzen** erakusten dute.

Azken batean, aukera paregabea da komunitateen arteko harremanek, loturek edo sareek **kultura-ondarea** sustatzen eta aberasten dutela erakusteko.



PERTSONA GUZTIEN ETA GUZTIENTZAKO ONDAREA

Ondarearen Europako Jardunaldietan antolatzen diren ekitaldiak **paregabeko aukera** izan daitezke urteko beste uneetan bisitatzeko oso zailak diren ezohiko lekuak aurkitzeko. Nori ez litzaioke gustatuko normalean itxita dagoen leku bat bisitatzeko? Gure atea irekitzeko unea da, garenak egiten gaituena erakusteko eta azaltzeko.

Jardunaldien xedea da **ondarea pertsona guztiei erakustea, eskuragarri egitea**. Pentsatu al duzu inoiz egiten duzun hori pertsona guztiengana irits daitekeen? Edozein pertsonak uler dezake helarazi nahi duzuna, bere **gaitasun kognitiboa** alde batera utzita? Bere kabuz iritsi daiteke dagoen tokira edo bidean **oztopoak daude?** Gizartean dauden kolektibo guztiak jabetzen al dira egiten duzunaz? Zure buruari galdetu al diozu inoiz nola iritsi daitekeen **gizarte bazterketa** jasateko arriskuan dauden pertsonengana?

Gida honen bidez, Ondarearen Europako Jardunaldietan jarduera bat antolatzen parte hartzen duten pertsonak bultzatu nahi ditugu, **hainbat jenderekin konekta daitezen** eta, tradizioz, ondarearen interpretazioan sartu ez diren taldeekin lankidetzan ari daitezen. Begirada zabaltzen badugu,



**eztabaida sustatu dezakegu eta ondarea hainbat ikuspegitik transmititu?
Zer gertatuko litzateke kultur nortasun desberdinak dituzten pertsonak gure
ekitaldiarekin bat egingo balute?**

Agian laguntza behar duzu audientzia zabal eta askotariko horretara iristeko edo, agian, ez dakizu nondik hasi; beraz, zenbait argibide emango dizkizugu “nondik hasiko naiz” atalean eta “ideia inspiratzaile batzuk” atalean.



ONDARE JASANGARRIA, ETORKIZUNeko ONDAREA

Jardunaldi hauek ondareaz modu jasangarrian goatzera animatzen gaitu, horrela bermatuko baitugu ondare hori zaintzea eta etorkizuneko belaunaldiek ere ondareaz gozatzen jarraitu ahal izatea.

Era berean, aukera bat da gure iraganetik ikasteko eta etorkizun bat imajinatzeko, non kulturak lagunduko duen aurrerabide iraunkorra izango duen eta pertsona guztientzat izango den mundu bat sortzen.





PARTE HARTZEKO ARRAZOIAK

- ✓ Urtero Euskadi osoko jendea batzen duen ondare festa ospatzeko.
- ✓ Zuretzat ezinbestekoa dena partekatzeko eta tokiko ondarearen onarpena sustatzeko.
- ✓ Gizarte harreman berriak errazteko eta komunitateak sortzeko.
- ✓ Zure proiektuarentzako/ekipamenduarentzako **bideragarritasun handi**agoa lortzeko programa batean azalduz, eta Gipuzkoa osoan 10.000 kopia banatuz..
- ✓ **Kultur eragileen komunitate aktiboan** sartzea.
- ✓ **Formatu berriak, ideia eta esperientzia berriak** berrituz zure antolaketa hobetzen da.
- ✓ **Zure proiekturako edo zentrorako entzule berriak** erakartzea.
- ✓ **Asetze maila handiko** programa: jardunaldietan parte hartzen dutenen % 90 baino gehiagok, gehieneko puntuazioarekin balioesten dute parte hatzen eta errepikatu nahi duten jarduera.

★ Animatu zaitez, **kultura zure jarduerarekin uztartzea sozialki onuragarria da eta!**





NONDIK HASI?

Modurik onena da pentsatzea **zer aurkeztuko dudan eta nori kontatuko diodan**, haurrak badira, familiak, helduak, lokalak, turistak, kolektibo ahulak eta abar.

Gero, imajinatu zerbait **ezezaguna edo ezkutua azalduko** duzula, eta, arreta erakartzeko, hasi zure ekitaldia deskribatzen jakin mina eragin dezakeen sarrera batekin eta parte hartzaileek ikusi eta esperimendatuko dutenaren deskribapen batekin. Bakarra, paregabea, erakargarria, eta abar moduko adjektiboak erabili eta ezagutu o aurkitu dezaketinari buruzko pistak eman. Izenburu motza baina sortzailea erabili. «Aitorrekin arrantzan» hobetsi «baxurako arrantzaren» aldean.

Ziurtatu **harremanetarako datu guztiak** dituzula: data, ordutegiak, aurre inskripzioa, topalekua, kontaktuak.

Bisitariak zer egingo duten jakin ahal izateko, **argazkiak** sartu. Familientzako jardunaldia bada, haurrak dauden argazkiak sartu. Aldiz, helduentzako bada, parte hartzen ari diren helduen argazkiak aukeratu. Pentsa irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela, eta argazki batek norbait zure ekitaldira joatea eragin dezakeela.

Zabaldu zure audientzia eta hurbildu zure jarduera pertsona guztiei! Horretarako, galdetu zure buruari: nola ezagutu daiteke nire jarduera modu hobean? Ba al dago hobeto transmititzen lagunduko didan zerbait? Nire ekitaldia inklusiboa al da? Erabilgarria izan daiteke ondarea ezagutzeko baliabideak eta modu desberdinak sortzea, pertsona guztiek aukera izan dezaten, modu normalizatuan, kultura arloan parte hartzeko.

Adibidez, **edukiak transmititzeko hainbat modu** eskain ditzakezu: zeinu-hizkuntza, braille idazkera, eta komunikazio oztopoak ezabatzeko irakurketa erraza. Mezuak hobeto ulertzen laguntzeko **baliabideak erabiltzea** gomendatzen da, hala nola **piktogramak, objektuak, irudiak dituzten laminak eta abar**.

Entzun parte hartzen duten kolektiboak eta ezagutu alde aurretik haiek dituzten premiak. Aztertu zeintzuk diren hartzaileen interesak eta saiatu erantzuten.



Zure ekitaldia inklusiboa bada, beste pertsona batzuegana irits daiteke eta zure jardueraren hedapena biderkatu egin daiteke; horretarako, haratago joan zaitez eta galdera hau egin zure buruari, jar naiteke harremanetan orain arte interakziorik izan ez dudan pertsona batekin?

Arrakastaz antolatu al duzu dagoeneko ondarearen inguruko ekitaldirik? Zergatik ez egokitu ekitaldia pertsona guztien premietara **irisgarriagoa eta inklusiboagoa izan dadin? Zure unea izan daiteke ekitaldia diseinatzeko **irisgarritasun eta inklusibitate gakoei jarraituz: fisikoa, sentsoriala, kognitiboa ... Ez dakizu nondik hasi? Zergatik ez gonbidatu dibertsitate funtzionala duten kolektiboetako bat? Haien beharrak ezagutzea abiapuntu ona izan daiteke!****

Zure jarduera parte hartzailea izan dadila! Dibertsitate funtzionala duten pertsonen zuzendutako bisita edo tailer parte hartzaile espezifikoak antola daitezke, bereziki gomendagarriak baitira desgaitasun kognitiboa duten pertsonentzat. Horretarako, bisitaren edo tailerraren **gidoi bat ezartzea** komeni da, eta alde aurretik hartzaileen beharrak ezagutzen saiatzea.

Batasunak indarra dakar! Askotan, beste elkarte/eragile batekin elkartzeak baliagarri izan daiteke eroegia zela uste zenuen ideia hori egia bihurtzeko. **Beste kolektibo batzuetara hurbiltzeak ezagutza ematen dizu.** Ez dakizu nola jarri zure jarduera aniztasun funtzionala duten kolektiboen eskura? Publiko espezifiko bati zuzendutako jarduera bat antolatu nahiko zenuke, eta ez dakizu nola? Jarri harremanetan pertsona horiekin lan egiten duen kolektibo batekin! Aukerak mugagabeak dira

Formatua garrantzitsua da. Jardueraren gaiarekin batera formatuak publikoak parte hartzera bultzatu dezake. Ez zaitez lotsatia izan, ondarea modu askotara kontatu daiteke eta.



HONA HEMEN ZURE EKITALDIA JASANGARRIA IZATEKO IDEIA BATZUK

Ondareaz modu jasangarrian gozatu nahi duzu, eta ez dakizu nondik hasi? Jarraian, zure ekitaldia ahalik eta jasangarriena izateko egin daitezkeen ekintza txikien adibide batzuk emango dizkizugu.

Ekintza eta keinu txiki asko eginez, mundu jasangarriagoa sortzen lagun dezakegu!



EZAR DITZAKEGUN HELBURU BATZUK

- 1. Hondakinak murriztu, berrerabili eta birziklatzea.**
- 2. Energia eta ur kontsumoak murriztea.**
- 3. Mugikortasun jasangarriaren alde egitea.**
- 4. Airearen kutsadura saihestea.**
- 5. Kutsadura akustikoa eta argi-kutsadura saihestea.**
- 6. Elikagai osasungarriak eta ingurumenarekiko eta osasunarekiko arduratsuak banatzea.**
- 7. Bertaratuak sentsibilizatzea ingurunearekiko errespetuaren inguruan.**





AHOLKU OROKORRAK

- **Jasangarritasuna hasieratik kontuan hartu:** plangintza prozesuaren lehen faseetatik hasita jardueraren ingurumen inpaktuari buruzko gogoeta eta ebaluazioa egiteak, lagunduko digu eman beharreko pauso guztietan.
- **Ebaluatu:** ahal den neurrian, jarduera amaitutakoan, eragindako ingurumen-inpaktua eta hartutako neurrien eraginkortasuna ebaluatu, adierazleak erabilia. Adibidez:
 - Energiaren, uraren, materialen kontsumoa.
 - Joan-etorriak ibilgailu pribatuetan, garraio publikoan, oinez egin dituzten pertsonak.
 - Sortutako zabor kilogramoak.
- Jardueraren **karbono azterna** kalkulatu eta sortutako CO2 isuriak konpentsatu.
- Azpiegituren (lokalak, eta abar) beharra **dimentsionatu**, espero den jendearen arabera.



MUGIKORTASUNA

- **Irisgarria eta garraio publikoan:** kokatu ekitaldia edo jardueraren hasiera, oinez eta garraio publikoko sarearen bidez iristeko moduko toki batean. Jasangarriak izango gara eta, gainera, jendeari bertaratzeko erraztasunak emango dizkiogu.
- **Bizikleta:** esparruaren edo jardueraren hasieraren inguruan aurkitu bidegorriak, bizikleta-bideak eta bizikletentzako aparkalekuak.
- **Informatu** ekitaldia edo jarduera egingo den lekura iristeko aukerei buruz, oinez, bizikletaz edo garraio publikoan iristeko aukerak azpimarratuz eta ibilgailu motordun pribatuan ez joatea aholkatuz.





ENERGIA

- Ekitaldiak **egunez** programatu eta, ahal dela, argi naturala duten aire zabaleko lekuak aukeratu.
- Esparru itxietan, **modu naturalean ondo argizatutako leku bat aukeratu** (leiho zabalak, parke batean jarritako karpa...).
- Esparru irekietan, eguzkiak gehien jotzen duen tokietan **itzalguneak** jarri bertaratzen direnentzat; horrela, aire girotua duten esparru itxiak gaitzea saihesten dugu.
- **Argi puntu estrategikoak** identifikatu, bonbilla eta foku kopurua murrizteko.
- **Energia kontsumo txikiko bonbillak** erabili (ahal dela, led motakoak).
- Bainugeletan eta igarobideetan **argiztapeneko gailu automatikoak** instalatu.
- A motako etxetresna elektrikoak hautatu. Ingurumen irizpideak ezarri aparatu elektrikoetan.
- Unean uneko eta ekitaldiko beharretarako **klimatizazio egokia** eta optimoa kontrolatu eta haren jarraipena egin.
- Bainuko konketetan ur **beroa** erabiltzeko aukera kendu, garatu beharreko ekitaldiaren arabera.



AGUA

- **Tenporizadore automatikoak** dituzten txorrotak instalatu.
- Zurrusta-haustekoak edo difusoreak jarri **txorrotetan**, ur-emia murrizteko.
- Komunetako zisternetan **ur bolumena murrizteko gailuak** instalatu.





NATURA ETA BIODIBERTSITATEA

- Jarduera **naturagune babestu batean** garatzen bada, kontsultatu Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneke Zuzendaritza Nagusiari baimenen beharrari eta baldintzei buruz.
- Ingurune naturaleko gune edo puntu sentikorretan (habitat baliotsuak, espezie babestuen ugalketa guneak, etab.) **pertsona asko ibiltzea saihestu.**
- Natura ingurunean jarduera zaratatsuak saihestu. Natura ondareak isiltasuna du gogoko.
- Aire zabaleko jardueretan gehiegizko argiztapena saihestu.
- Aukeratu edo aldatu ekitaldiaren data, animalia espezieen ugaltze aldiekin bat ez etortzeko. Kontsultak egin daitezke GFAko Fauna eta Flora Zerbitzuan.
- Jarduera amaitu ondoren, ingurune osoa berrikusi eta bertan utzitako hondakinak bildu (maskarak, paperak, zigarrokinak, etab.).



EROSKETA BERDEA ETA ZIRKULARRA

- Ingurumen irizpideak sartu produktuak eta zerbitzuak erostean eta kontratatzean.
- **Erosketak ekitaldiaren edo jardueraren beharren arabera dimentsionatu.** Ondo kalkulatu bertaratuen kopurua, behar direnak baino produktu gehiago ez erosteko, prestatzeko edo inprimatzeko, eta, behar izanez gero, adostu hornitzailearekin erabili/kontsumitu ez diren materialak/produktuak itzultzea.
- Tokiko produktuak eta hornitzaileak hautatu.
- Jarduerak janaria barne hartzen badu, kontuan hartu **tokikoak, sasoikoak, ekologi-koak edo bidezko merkataritzakoak diren produktuen kontsumoa.**



- **Planifikatzen badugu, ez dugu xahutuko:** jarduerak janarien banaketa barne hartzen badu, aurreikusi plan bat «soberakinak» kudeatzeko eta janari hondakinik ez sortzeko.



HONDAKINAK

- **Berrerabili** aurreko ekitaldietako material posible guztiak.

- **Materialak:** saiatu erabili beharreko produktuak eta materialak (platerak, edalontziak, boligrafoak, zabor-poltsak, merchandisinga, eta abar) gai **biodegradagarriez edo birziklatuez** egindakoak izatea.

- Erabili ondoren erabilgarritasuna galtzen duten materialen **zerrenda egin** (ekitaldiaren datuak dituzten olanak, sokak, objektuak estaltzeko plastiko handiak, apaingarriak, kableak, identifikazio-txartelak, etab.). Beste ekitaldi baterako gorde daitezke, edo berrerabil ditzaketen kolektiboek eskaini.

- **Koloretan inprimatzea saihestu.** Ekitaldiaren programa digitalki partekatu sare sozialetan, eta QR kodeak eskaini egun berean, bisitariek behar dutena aurkitu ahal izan dezaten beren smartphonean.

- **Behar diren edukiontzi eta paperontzien kopurua, tamaina eta mota planifikatu,** ekitaldiaren ezaugarrien eta bertaratuen kopuruaren arabera.

- **Birziklatzeko irlak osatu edukiontzi guztiekin** (organikoa, papera, beira, plastikoak eta metalak, etab.), edukiontzi isolatuak sakabanatzea saihestuz.

- Gaikako bilketarako gunek eta paperontziak jartzeko **leku estrategikoak aztertu** (elikagaiak ematen diren gunek, mahaiak dauden lekuak, piknik gunek eta abar), ikusgai daudela eta erabiltzaileentzat eta garbiketa-ekipoentzat irisgarriak direla bermatuz.

- **Xaboi eta detergente ahalik eta ekologikoenak** erabili (biodegradagarriak, fosforirik gabeak eta tentsioaktibo gutxikoak) jarduera garatuko den lokalen edo esparruen garbiketan eta higiean.





HAINBAT IDEIA INSPIRATZAILE HAI ERAKUTSIKO DIZKIZUGU



Gogoratu, ezen beste edizioetako inkestek esaten dutenaren arabera, entzuteaz eta begiratzeaz gain, **publikoak gauzak egitea gustuko duela**; besteak beste, ukitzea, parte hartzea, usaintzea, imajinatzea, esandako hori esperimentatzea...



Musikari bat gonbidatu, bere instrumentua jo eta bere historia konta dezan, lehen instrumentuak, garapena, ospetsuenak.



Ibilbide musikal bat egin zure auzoan, kantutegi tradizionala berreskuratzeko.



Lurraren sekretuak ezagutu! Nondik datozte jaten ditugun elikagaiak? Baratza batera txango bat prestatu eta bertako laborariekin nekazaritza tradizionalaren esentzia erakutsi ezazu. Zeintzuk dira sasoiko produktuak? Nola landatzen dira?



Moda tradizionalaren desfilea! Jantzi tradizionalekin moda desfile bat antolatu. Betiko musika-tresnak jotzen dituzten musikariak pasarela gainera gonbidatu. Beste garai batera bidaitu!



Migrazio handiak izan al dira zure komunitatean industriak edo lanpostuak sortzearen ondorioz? Pertsona horiek jarraitu zituzten ibilbideak ikertu eta mapa bat egin zenezake, eta iritsitako komunitatei edo lekualdatu zirenei buruz zenbat aurki dezakezun ikusi.



Antolatu irteera gidatu bat **naturagune babestu batean**. Parte hartzen duten pertsonak ezagutu ahal izango dute han gordetzen den natura ondarea eta ondare horrek ingurune jasangarri batean duen eginkizun garrantzitsua.



Bisita gidatu inklusibo bat egin ezazu, sormenaz eta ukimen-baliabideez lagunduta.



Aspaldiko zerbait duzu eta ez du inork ezagutzen? Aprobetxatu urriko hilabetea erakusteko. Antolatu bisita bat zure **elkartera, antolakundera, tailerrera, merkataritzara, zinemara, antzerkira, bulegora, biltegirira** eta konta iezaguzu zein diren zure sekretuak;



Tailer bat antolatu **artisautza tradizionalak** ezagutzeko – adibidez, arropa jostea, ehuntzea edo egitea – eta jaso dituzten eraginak erakutsi.



Nolako da gure **ingurunea**? **Lekua definitzen duten tokiko paisaiaren alderdiei buruzko hitzaldia ematera gonbidatu geografo bat**, eta ondarea kudeatzeko ideia berritzaileak proposatu. Blog batean jaso ditzakezu!



Inguruko eraikinek izan dituzte nazioarteko eraginak ezagutzeko, **ezaugarri arkitektonikoak eta diseinua aztertuko** dituen adituekin bisita gidatuak antolatu.



Erakutsi zure ohiturak! Gazteentzako **bideo lehiaketa** bat planifikatu dezakezu, tokiko tradizioetan oinarrituta. Parte-hartzaile guztiekin topaketa bat antolatu eta hautatutako bideon emanaldi bat egin dezakezu.



Parte-hartzaileak merkatarari bihurtzen diren jolas interaktibo bat antolatu, **ibilbide komertzial historikoen bidez nabigatzen duten**, akordioak negoziatu eta merkataritza-sare emankorrak sortzeak dakarren erronka esperimentatu.



NOLA BIDALI NIRE JARDUNALDI PROPOSAMEN BAT?



Gipuzkoa Kultura web orriaren bitartez jardueraren fitxa bete Informazioa bidali ostean, berrespen mezu elektronikoa jasoko duzu eman duzun helbide elektronikoan.

Zure ekitaldiak berezitasunen bat badu, antolatzailearen ohar atala erabil dezakezu guri kontatzeko. Gogoratu garrantzitsua dela informazio hau argi izatea:

1. Ekitaldia burutuko den **udalerria**.
2. **Jardueraren izenburua:** gogoratu zenbat eta erakargarriago izan orduan eta parte hartzaile gehiago erakarriko dituela.
3. **Jarduera mota**.
4. **Deskribapena:** azaldu nola transmitituko den ondarea eta deskribatu bizitarientzat zer ikusiko duten edo zer egingo duten.

5. Hizkuntza.

6. Topalekua.

7. Eguna(k) eta ordua(k): Bi datu horiek planifikatzen laguntzen dute.

8. Informazioa eta erreserbak.

9. Zein gizarte kolektiborentzat egokituta dagoen jarduera.

10. Ekitaldiak dituen irisgarritasun neurriak.

11. Jardueraren bidez bultzatuko diren garapen jasangarriko helburuak.

Ziur ez bazaude zure ekitaldia bidali duzula do arazoren bat duzu, bidali e-maila oej.gipuzkoa@gipuzkoa.eus helbidera.



PROPOSAMENA BALIDATZEA

Zure proposamena bidali ostean, antolatzaileak balidatuko du. Horretarako, jardunaldiak Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle Iñaki Arrietaren babesa izango dute.



IRUDIZTATU ZURE JARDUERA!

Proposamena bidali ostean, material grafikoa bidali behar da Argazkia aukeratzeko eta bidaltzeko unea da liburuxkan zure jardunaldiarekin eta antolatzaileen logoekin agertuko dena.



EGUTEGIA



Edizio berri bat
prestatzea

24/03
05/5

14/04
01/06

Proposamenak bidaltzea

Proposamenak
balidatzea

05/06

09/01

Programa osoa jendaurrean
aurkeztea

EO], ondare festa

09/01
11/31

11/31
12/31

Ebaluazioa



OHIKO GALDERAK

1. Oso ideia ona daukat ondare festarako, antolatzaileek programatuko lukete?

Ez, erakundeak proposamenaren inguruko aholkuak eman ditzake, baina ez du programatzaile gisa jarduten.

Parte hartu nahi duen interesdun bakoitza bere proposamena itxita bidaltzen du, data, toki eta ordu batekin.

2. Ondarearekin oso lotura handia duen ekitaldi bat antolatzen dugu urtero, bidali dezaket jardunaldietako parte izan dadin?

Bai, edukiak zuzeneko lotura badu ondarearen eskualdatzearekin, Europako Ondare Jardunaldien jardueren barruan sartu daiteke. Zure proposamena bidaltzen duzunean, adierazi nolako lotura duen jarduerak ondarearekin.

3. Urrian beti ospatzen dugu kultur jardueraren bat baina ez dakit ondarearekin loturarik duen, egitarauaren parte izan al daiteke?

Ondarea pentsatzen dugunetik askoz hurbilago dago, ondarea ez da soilik museo baten parte den monumentu edo obra bat. Ondarea nonahi egon daiteke, gure arbasoen oroimenean, gure parkeak apaintzen dituzten iturrietan, eraikinetan, belaunaldiz belaunaldi igaro diren errezeta eta jakintzetan.

4. Gipuzkoako Foru Aldundiak programa hori finantzatzen du?

Ez Gipuzkoako Foru Aldundiak programa sustatzen, koordinatzen, zabaltzen eta argitaratzen du, Arabako eta Bizkaiko Aldundiekin elkarlanean eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

5. Antolatzen dudan jarduera urrian izan behar du?

Ez da nahitaezkoa, baina bai gomendagarria. Jarduerak urrian biltzen baditugu programa ikusgarriagoa izango da.

6. Udazkenean izango den jarduera bati buruz erabakitzea zaila da, noiz eman behar dut ekitaldiaren behin betiko data?

Gipuzkoa Kulturaren formularioaren bidez jardueraren lehen proposamen bat bidal daiteke, behin behineko datarekin. Data itxita egon behar du maiatzaren amaieran liburuxka egiteko.





LAGUN ZAITZAKEGU?

Gipuzkoako jardunaldiak **Euskal Herriko Unibertsitateko** babesa dute antolatzaileak aholkatzeko. Gainera, **K6 kultur kudeaketaren** esku dagoen ondareari buruzko jardunaldien bulego teknikoak, zure zalantzak argitzen ditu, proposamenak koordinatu eta jardunaldietako jarduera guztiekin programa prestatzen du: gipuzkoa.oej@gipuzkoa.eus

* *Gida hau Kultura, Lankidetzaz, Gazteria eta Kirol Departamentuak egin du, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko Ingurumen Zuzendaritzaren laguntzarekin. Bertan sartuta daude European Heritage Days «Sustainable Heritage» gidako testuak.*

